



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.aoiz.es – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

5. zenb- 2017ko ekaina
MAIATZEKO LABURPENA

Agoitzek bere kultura ondarearen eta natura inguruaren alde egin du

Udalak, Cederna-Garalurren laguntzarekin, herriko turismoa garatzeko plan estrategiko bat garatu du, Toki Agenda 21eko programaren barnean. Horren helburua da turismo arloa bultzatzea, ondare eta landa baliabideak erabiliz.

Hiru dira planak dituen ardatzak: Agoitzekin lotutako produktuak, barne produktuaren garapena eta baliabideak ikustarazteko komunikazioa.

Iratiko Natur Bidea, Pirinioetako Kaltzada Erromatarra eta Itoizko urtegiarekin eta haren goialdeko uharkekin loturiko aktibitateak; tamaina handiko proiektuak dira, gure turismoko errealitatean eragiten dutenak. Iratiko trenbideko

trazadura zaharran eginen den Natur Bidea oso garrantzitsua da, denbora gutxian gure herria Argako Ibaiko Pasealekuarekin, Europako bideekin (Eurovelo) eta gure inguruko herrieekin lotuko baitu. Pirinioetako Erromatarren Kaltzadak Iratiko Natur Bidearekin lotzeko asmo duen proiektua da. Haren bidez arindu nahi da Donejakue bidean metatu den jendetza, Orreagaren eta Zubiriren artean. Urte bukaeran bultzada berri bat emanen zaio ideari.

Eta hurbilago ditugun turismo baliabideei dagokienez, hilabete gutxi barru ezagutuko dira berri batzuk; beste batzuk, berriz, eginak daude: Iratiko ibilbidea, esaterako, eta gune historikoan eta ibaiaren barnako alderdi batean

joaten dena. Bestalde, irailean udalak gestionatuko ditu Antxietako erretaula ikusteko bisitaldi gidatuak, artista beraren erretaulak dituzten herrieekin batera, hots, Tafalla, Añorbe eta Kasedako udalekin, martxan jarritako proiektua. Eta hile bereko 22an inauguratuko da El Irati S.A. enpresari buruzko erakusketa, informazio panelak, argazkiak, maketak eta dokumentalak ikusgai izanen ditu.

Gainera, inauguratu berri da, Beraxittoa alderdian, 9 autokarabana aparkatzeko lekua duen gune bat; eta udala lanean ari da, piraguismo eta ur zakar gune bat egokitzeko, eta aurki errealitate bihurtuko dugulakoan gaude.



Berrien buletin hau e-mailez jaso nahi baduzu, igorri mezu bat comunicacionaoiz@gmail.com-ra, eta bertan adierazi gaia, hots, buletina.

Zarikieta, babes bereziko eremua deklaraturakoa

Nafarroako Gobernuak berriki onetsi ditu lau foru dekretu. Horien bidez orain arte batasunerako interes berezikoak (BIG) ziren zenbait gune, hots, Leireko mendilerroa, Arbaiungo arroila, Arabarko, Artxuga mendilerroa, Zarikieta, Aretako mendiak eta Kodeseko mendilerroa, Babes Bereziako Guneak (BBG) deklaratu dituen. Deklarazioarekin batera, guneetako gestio planak ere onetsi dira. Modu berean, dekretu horien bidez eguneratu dira Arbaiungo arroila, La Piedra eta San Adriango labarrak, Irunberriko arroila, Iñarbeko arroila, Txintxurreneko arroila eta Gaztelu eta Labeja haitza, natur erreserbetako erabilera eta gestio zuzendaritza planak.



Artxugako mendilerroak, Zarikieta eta Aretako mendiak 19.530 ha egiten dituzte. Eremu horren ia %80 natura habitata dira. Leku horietako basoetan hegazti asko daude, katalogatutakoak. Nabarmenezkoak dira okil beltza eta

okil gibel nabarra (desagertzeko arriskuan dago Nafarroan). Gainera, alderdi horietako larre eta sastrakadiak habitat ezin egokiagoa da katalogatutako zenbait animalia eta landareentzat.

Kirola egiteko txoko berri bat

70 bat lagun joan ziren pilotalekuaren eta Zubi Beltzaren artean egokitu den parke bio-osasun-garriaren inaugurazio ekitaldira. Herriko adinekoek egindako eskakizunari erantzuteko eginkoia da, eta hari esker aire librean ariketa egiteko aukera ematen zaie.

Proiektua Toki Agenda 21an aurrikusita zegoen, eta La Caixako Obra Sozial programak bere gain hartu ditu 5 aparailuen gastua. Udalak parkean instalatu ditu eta panel ilustratu bat prestatu du aparailuak maneiatzeko jarraibideak emateko eta haien onuraz informatzeko.

Bertan elkartu ziren, besteak beste, Unai Lako alkatea, hitz batzuk eman zituen, Mike Lacabe herriko La Caixa bulegoko zuzendaria eta Jorge Vaquero Kanpandoa kirol guneko kudeatzailea. Azkenak parkea egoki erabili ahal izateko aparailuei buruzko azalpen zehatza eman zuen, zenbait boluntarioren laguntzarekin. Arratsaldeari bukaera emateko, udalak otamen bio-osasungarria eskaini zien inaugurazio ekitaldira hurbildutako guztiei: anana, sandia, marrubiak eta ura.

Heldu diren egunotan, goizez eta arratsaldez, monitore batek ariketa fisikoko programak eskainiko ditu bertan. Saio horiek doanekoak dira.



Taupadak: 0-3 urtekoentzako ikastetxeko kudeatzaile berria

Pasa den maiatzaren 18an egindako bilkura berezian, udalak 0-3 urtekoentzako zentroko gestioa adjudikatu zuen, heldu diren 6 urteetarako. Esleipenduna Taupadak mikro-kooperatiba izan zen, gaur egun lan egiten duten langileetako zortzik osatutakoa. Taupadak-ena izan da zentroa kudeatzeko egin den eskaintza bakarra, eta 2017 irailaren 1tik 2023ko abuztuaren 31 bitarte arituko da. Kontratazio mahaiak oso ongi baloratu du aurkeztutako proiektua, eta 92,72 puntu (100etik) eman dizkio. Mahaia honako hauek osatu zuten: udaleko zenbait politikari eta langilek, Nafarroako Gobernu Hezkuntza departamentuko teknikari batek eta 0-3 zentroko Guraso Elkarteak.



Uda honetan, 5 langile gehiago, udaleko brigada indatzeko

Maiatzaren erdialdetik irailaren erdialdera indartuta egonen da udaleko langileen brigada, zerbitzu antzeko 5 langile gehiago kontratatu direlako. Haien zeregina gure herriko garbiketa eta hobetze lanak egitea izanen da. Hilabete horietan zehar langileen plantilla handitzen da, eta Agoizko hainbat lekutako instalazioak eta abar hobetzeko aprobetxatuko da. Kontratazioek Nafarroako Gobernuko dirulaguntza izan dute, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez.



Hirigintza arloko jarduerak

Azken egunotan ikusi ahal izan ditugu ikastetxetik eta kirol gunetik hurbil dauden zenbait lekutan egindako hobekuntzak. Txikientzako segurtasun neurriak hartzea izan da lan horien helburua.

Iturriaren ondoan dagoen errotondan, hain zuzen ere, hesi bat jarri da, espaloian ibili ahal izateko errepidera ateratzeko arriskurik gabe. Horrela haurrak ezin izanen dira korrika atera hainbeste trafiko dagoen leku horretara. Gainera, modu horretan ere, ezingo dira ibilgailuak utzi espaloien gainean (debebatuta dago bertan aparkatzea).

Bestalde, kirol guneko atzealdean, bide bat egokitu eta mugatu da eta aparkatzeko zenbait plaza markatu dira. Kanpandoako instalazioetara gurutzatzeko oinezkoentzako pasabidea margotu da, eta ibilgailuak aparkatzeko eremua murriztu da.



DYA Nafarroak emandako ikastaroak

Azken hilabeteen zehar DYA Nafarroak zenbait formakuntza tailer antolatu ditu. Horien artean daude, Oinarrizko Bizi Euskarria eta DESA.



2015. urtean ikastaro hori bera arrakastaz egin zuten Kanpondoako, Kirol Elkarteko, Haur Eskolako, San Migel ikastetxeko, Udaleko brigadako eta Izaga Gizarte zerbitzuetako mankomunitateko zenbait langilek. Oraingoan, udaleko eta San Migel ikastetxeko bost langilek eta DYA Agoizko boluntarioek egin dute ikastaroa.

Udalak pertsonak formatzearen alde jarraitu nahi du, arazoa agertuz gero, lagundu eta bizitzak salbatu ahal izateko pertsonak trebatuta edukitzeko.

Agoitz Homo-Lesbo-Bi-Transfobiaren aurka

Maiatzaren 17an ospatzen da Homo-Lesbo-Bi-Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna, 1990.eko egun horretan Munduko Osasun Erakundeak homosexualitatea kendu baitzuen sexu gaitzen zerrendatik.

Agoizko Udalak aldarrikapen horri atxiki zen, onetsi zuen mozioaren bidez. Bertan egungo errealitatea agertarazi zen, alegia, bizi garen XXI. mende honetan, munduko 73 herrialdetan, sexu bereko pertsonen ateko harremanak zigortzen dituztela. Aho batez

onetsi zen mozioa. Mozioa, gainera, guztiz lotuta dago duela aste batzuk Iruñean bikote homosexualek pairatu zuen erasoarekin eta baita Hazte Oir autobusak hiriburu osoan zehar egindako kanpaina gaitzesgarriarekin.

Onetsitako testuaren bidez udala atxikimendua adierazi nahi dio kolektibo handi eta zabal horri, eta lan egiteko konpromisoa agertu ere, guztien eskubideak onar eta errespetatu daitezken.

Koloneko minbizia galarazteko programa

Nafarroako Gobernuak martxan jarri du koloneko minbizi goiztiarra detektatzeko programa, gaitzaren eragina gutxitzeko; izan ere, goiz detektatzen direnen %90 sendatzen dira. Haatik, gaitza aurreratuagoa badago, sendatzen direnen portzentaia %50era jaisten da.

baltzen ari da Nafarroako osasun etxe eta kontsultategi guztietara, prestatutako egutegiari jarraikiz. Martxoan gonbidapenak igorri zitzaizkien Agoitz eta inguruan bizi direnei, hala nola osasun etxeari atxikirik ez dauden baina eskualdean bizi diren beste 52 pertsona gehiagori.

Plana Nafarroan bizi direnen 50-69 urte bitartekoei zuzenduta dago. Programa poliki-poliki za-



Ikastaro berriak, %100 diruz lagunduta

Nafarroako Industriaren Elkarrekin (AIN), doaneko ikastaroak antolatu ditu berriro, Agoitzen duen presentakuntza programaren barnean. Oraingoan honakoa emanen ari da: Excel 2016, maila ertaina eta erdi-pre-

sentziala. Maiatzaren 31 eta ekainaren 14a bitartean garatuko da. Guztiran 29 ordu emanen dira, horietako 4 presentzialak. Informazio gehiago: 948 421 124 edo mdallo@ain.es.

“Acción contra la trata”-k emaniko tailerra

Agoizko eta Urrozko udaletako, SAREAN-eko, Haur Eskolako, San Migel ikastetxeko, Udaleko Berrintasun batzordeko eta eskualdeko talde feministako ordezkariak parte hartu dute «Cómo trabajar con la juventud la prevención de la trata con fines de explotación sexual» izeneko tailerrean.

Saioak Izaga Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak eta Agoizko Udalak antolatutakoak dira, eta horien helburua da emakume trafikoaz hausnartzea eta berdintasun tresnak eskaintzea, pertsona guztien arteko sexu harremanak libreak eta osasuntsuak izan daitezken.



ACT-ek (Acción contra la Trata) eman du tailerra. Talde horren helburua da sexua helburua duen emakume eta neskatu trafikoaren aurka borrokatzea eta berdintasun baloreak sustatzea.

Datorren azaroaren 17an, Udaletxeko Aurelio León aretoan, Emakumea eta Trafikoari buruzko hitzaldia izanen da. Herritar guztiei zabalik dago. www.accionconlatrata.com

Emakume sahararren kolektiboaren integrazioa

Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Karekin Kulturak lagunduta, tailer bat egiten ari da Saharako emakumeekin. Pasa den maiatzean hasi zen eta ekainaren bukaera arte iraungo du. Asteko saioak egiten dira, integrazioarekin lotutako gaiak lantzeko, ipuinen munduaren bidez. Tailerra Saharako istorioetan eta

komunitate horretako imaginarioan oinarrituta dago, eta zortzi emakumek parte hartzen dute, taileraren bukaeran eskainiko duten ipuin sorta bat prestatzen ari direnak. Tailerrak Saharako familiekin hurbilago lan egin behar izateari erantzuten dio, elkarren artean eza-gutzeko eta haien seme-alaben integrazioa errazteko.

Birziklapenaren astea ospatu da

Birziklapenaren Nazioarteko Eguna maiatzaren 17an ospatzen da mundu osoko leku askotan. Ospakizunaren helburu nagusia ekologiararen inguruko kontzientzia irmoa sorraraztea da, herritarrek hiri hondakinak egoki kudeatzeko, klimaren aldaketa gutxitzearen alde egiteko eta ingurumena babesteko.

IRATI HHS Mankomunitateak aktibi-

tate desberdinak egin ditu astean zehar. Agoizko, Lakabeko, Eloko eta Urrotzeko ikasleek bisitatu zuten Emauseko Traperok Sarasan duten zentroa. Han, gizarteak baztertzen dituen objektuak eta materialak berreskuratzen dituzte (aparailu elektriko eta elektrikoko materialak, bereziki), bigarren eskuko gaien salmentaren eta birziklapenaren bidez.

Horretaz gain, negu osoan zehar konposta egiteko auzoetako guneetan sortutakoa banatu zen. Agoizko 87 familiak parte hartzen dute programa horretan, haren hondakin organikoak ongari bihurtzeko. Jende asko hurbildu zen Mankomunitateko habeartera, konpost zakuak hartzera. Eskerrik asko zuen partaidetzagatik.

Birziklaiaren inguruko Ecoembes proiektua

Ecoembesek IRATI HHS Mankomunitatearen barmean Canal Horecaentzat propio eginiko birziklapen proiektua sustatu du.

Proiektua mankomunitatea osatzen duten herrietako leku desberdinetan egiten da eta hainbat fase ditu. Lehenik, establezimendu bakoitzak birziklapenaren inguruan dituen beharrak aztertzen dira: hondakinak selektiboki banatzeko behar diren ontzi kopurua, birziklatzeko orduan agertzen diren arazoak eta abar.

Establezimenduak proiektuan sartu ondoren, bi entitateek gestionatzen dituzte beharrezko ontziak eta, gainera, kalean dauden edukiontzia ikuskatzen dituzte, non dauden ziurtatzeko eta aurretik banatutako hondakinak uzteko beharrezko ezaugarriak dituztela egiaztatzen.

Ontziak eta edukiontzia banatutakoan, establezimenduetan lan egiten dutenei prestakuntza zehatza ematen zaie, hondakinak egoki banatu eta kudeatzeko.



Kanpondoa kirol gunea

Ekainaren 16 arte martxan jarri da Kanpondoan partaidetza prozesu bat. Balorazio galdetegi bat presatu da instalazioen erabiltzaileen asebetetze maila ezagutzeko, arlo hauen inguruan bereziki: instalazioak, langileak eta kirol programazioa. Inkesta egiten den bigarren urtea da.

Gainera, maiatzeko plenoan, udalak onetsi zituen instalazioak erabiltzeagatik 2017ko tasak. Aurten ere mantendu dira prezioak, eta jaitsi

dira, aldiz, erabiltzaile berrientzako matrikulen kostua. Halaber, udal korporazioak onetsi zuen Kanpondoko instalazioetako tabernako gestio aldaketa. Oraingo kudeatzaileek errendamendu kontratua utzi diote Amagoia Eslava agoizkoari, eta bera izanen da, beraz, hemendik aurrerako arduradun berria. Kontratua ekainaren 1ean hasi zen, eta egindako esku-aldaketaren ondorioz berriak jarraituko du 2013ko ekainean 10 urterako egindako errendamendu harekin, orain arteko jabeek

izan dituzten baldintza berberekin. Aldaketa hori elkarren arteko akordioaren ondorioa da. Suerte handia kudeatzaile berriari.

NAFARROAKO ESKUBALOIKO KOPAREN FINALAK. Bigarren urtez Nafarroako Eskubaloiko federazioa Agoitzera hurbildu zen 2017. urteko Nafarroako Kopako, emakume eta gizonezkoan gazteak kategorian, finalak jokatzeko. Partidak maiatzaren 21ean, igandea, egin ziren San Migel ikastetxeko polikiroldegian, giro ezin hobean. Emakumeen kategorian, Lizarrerria eta Lagunak taldeek jokatu zuten, eta gizonezkoen berriz, Anaitasuna eta Uharte. Horretaz gain, hara bertaraturako parte hartu ahal izan zuten Nafarroako federazioak programaturako beste aktibitate batzuetan. Agoizko Kirol Elkarteko neska-mutiek ere parte hartu zuten. Izan ere, lehen denboraldi honetan topera disfrutatzen ari dira eskubaloiarekin. Ea aktibitatea egonkortzen den eta ibilbide luzea egiten duen.



Udal musika eskolako aktibitateak

Azken hilabete honetan zehar Agoizko Udala Musika Eskolak zenbait ekitaldi antolatu ditu. Kultur Etxeko aretoan kontzertu didaktiko bat egin zen, Ikastetxe Publikoko txikienei zuzendutakoa. Saio dibertigarria eta erakargarria izan zen, musikarekiko zaletasuna piztea helburua zuena, interpretatu daitezkeen instrumentu andana erakutsiz.

San Isidro eguneko goizean herriko kaleetan barna ibili ziren eskolako ikasle multzo handi bat, melodia ederrak joz.

Txistuko ikasleek, Carlos Peñaranda irakasleren

zuzendaritzapean azken urteetan egiten ari diren moduan, kontzertu eder bat eskaini zuten, kultur etxea lepo jarri zuena. Haiekin batera egon ziren eskzenatokian Uharteko eta Irurtzungo musika eskoletako ikasleak. Herri horietan ere kontzertu bera eskaini zuten hiru eskolako ikasleek.

Azkenik, nabarmendu daiteke tronboia jotzen ikasten ari diren Agoizko eskolakoek Berriozarko II. Tronboiaren Egunean parte hartu zutela. Jardunaldian Berriozar, Aranguren, Noain-Elortzibar eta Antsoingo eskolakoak elkartu ziren.



Entitateentzako dirulaguntza deialdia ebatzi da

Udalaren eta kolektiboen arteko lankidetzaren hitzarmenak onetsita, herriko kultur entitateentzako dirulaguntza deialdia ebatzeko txanda da. Aurten 2.000 eurokoa zen partida. Bi proiektu aurkeztu dira, baina horietako bat ez zen

dirulaguntzen xedera egokitzaren, ez baitzen zehazki kultur ekintza bat edo oinarrietan dirulaguntzeko moduan jasotakoa. Bigarren proiektuak, aldiz, Angiluerreka Elkarrekin jai-aurreko astea antolatzen laguntzeko

aurkeztutakoak, 1.903,5 euroko dirulaguntza jaso du. Banatu gabekoa, 2000 euro artekoa alegia, ezustekoentzat erabiliko da, beti ere kultur izaera badute eta herrikoak badira.

Kulturguneak abuztuko jaietako programa burutu du

Kulturgunea foroak maiatzean eginiko bilkuran borobildu zuen abuztuko jaietako programazioa. Programazioaren alderdi nagusiak zehazturik gelditu ziren, bai udalak antolatzen dituenak, bai kolektiboen antolatutakoak. Mahai gainean gelditu zen, ordea, txupi-

nazoa jaurtiko duen pertsona izendatzea. Herrikoei galdetuko zaie e-mailen bidez, proposamenak bidal ditzaten.

Gainera, jaietako programa diseinatzeko, erabaki zen herritarrei jaietako argazki zaharrak eskatzea.

Heldu den ekainaren 29an Kulturguneak eginen den bilkura berezian, eta txupinazioa botatzeko aurkeztutako proposamenak ikusita, erabakiko da nork piztuko duen txupina.

Jaietako kartelak iragartzeko lehiaketa

Urtero bezalaxe, Agoizko Udalak antolatu du abuztuko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa, jaiak iragartzeko irudia aukeratzeko eta ekitaldien programako azalean erabiliko dena. XX. edizioa da aurtengoa, eta bi modalitate ditu: bat

artista helduentzako zuzendutakoa eta beste bat artista haur-gazteei zuzendurikoa. Modu berean, haur gazte modalitatean, hiru kategoria ezarri dira: 5-7 urte bitarteko haurrak, 8-12 bitartekoak eta 13-16 (biak barne) urte bitar-

teko gazteak. Lanak originalak izan behar dira, eta horiek onartzeko epea heldu den ekainaren 16an bukatuko da, 13:00etan. Oinarriak ikusgai daude udaletxean, kultur etxean eta udalaren web-orrian.

San Romaneko erromeria

Berriz ere maiatzeko lehen igandean, burutu zen San Roman ermitako erromeria. Prozesioa goizeko 9etan atera zen elizatik. Ermitan meza ospatu zen, eta ospakizunak Bilaketa gitarra taldeko laguntza izan zuen. Goiza bukatzeko, uda-

lak aperitibo bat eskaini zien herritarrei. Aurten nobedade bat izan zuen egunak, Luis Prieto eta Dani Saez gure bizilagunek otapurrak prestatu eta banatu zituztelako. Eskerrik asko zuen partaidetzagatik. Eta eskerrik asko eguna

borobila izan zezan laguntzera hurbildu ziren udal langileei.

Giro bikaina Sanisidrotan

Sanisidrotako jaiak giro ezin hobean eta partaidetza handiarekin igaro dira. Ahoa egiteko, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek frontoia gainezka bete zuten maiatzaren 11n "Tipi-Tapa, Korrika!" ikuskizunarekin. Ostiral arratsaldean, Udala Pilota Eskolako lehiaketako finalak ospatu ziren.

Larunbat goizean, hilak 13, Angiluerrekako zanpazarrak kaleak girotu zituen, artesia azoka antolatu zuen Sareanek eta Agoizko musika eskolako ikasleek jo zuten. Arratsaldean eta gauean, berriz, jaia eta animazioa baxeraz baxera ibilitako kalejirarekin, Oharkabe taldeko dantzaldiarekin, Asier Ojerrekin eta Bilaketa txaranga-rekin.



San Isidro egunaren bezperan, arratsaldean, 0-3 urteko zentroko eta Ikastetxe publikoko guraso elkarteek jolasak eta tailerrak antolatu zituzten txikiarentzat. Eta, noski, ezin falta San Migel abesbatzako Salbea, sua, zezensuzkoak eta karteta.

Maiatzaren hamabosteko goizean, dianak, prozesioa, meza, erraldoiak izan ziren. Erraldoietakoa bikote agoiztarrek trajeak estreintatu zituen. Arratsaldean, txokolata eta jota, dantzariak eskainita.



Narrazio laburren lehiaketa sariak banatu dira

Agoitz Hiria XI. Narrazio Laburren Lehiaketak sariak banatzeko ekitaldia egin zuen, jendez gainezka jarri zen Kultur Etxeko entzutegian. Oso dibertigarria gertatu zen gala, Ainhoa Juaniz aktoreak trebezi eta umore handiz zuzendu zuena. Ikasturte eta ziklo desberdinetako irabazleak banan banan deitzen joan zen. Ongi irabazitako sari horiek epaimahaiko, eskolako eta udaleko kideen laguntzarekin banatu zitzaizen geroko gure herriko idazleak izan diren egungo idazle-gaiei. Zorionak irabazle guztiei eta partaide guztiei.



Maiatzeko kultur programazioaren balantzea

Maiatzean zehar zenbait kultur aktibitate antolatu dira, eta horien artean dantzaren ingurukoak izan dira protagonistak.

Apirilari bukaera emateko, Dánzalo dantza eskolak Mary Popins musikal bikaina eskaini zuen. Eskolako ikasleek taularatu zuten, Marta Piñeiroren zuzendaritzapean, eta izandako bi saioetan aforoa bete zen.

Gainera, Agoitzek parte hartu du Dantza Garaikideko Nafarroako Jaialdiaren bigarren edizioan. Guztira hamabost ikuskizun, nazioarteko zazpi, mugitu dira Nafarroako bederatzi udalerrietako espazio publiko edo antzokitan, eta hogeita hamarretik gora izan dira emanaldiak.

Hemen, Agoitzen, lehena izan zen "Gurpilen Ganean" espektakulua, Kon Moción konpainikoa eta Becky Siegelek zuzendutakoa. Ahalmen desberdineko pertsonen gizartratzearen aldeko apostua da.

Jaialdiaren barnean ere, 10 egunez izan dugu gure antzokian Transoceánica proiektu artistikoa. Carmen Larranzen (koreografoa) eta Uxue Monteroren arteko lan komunaren emaitza da; eta, soinuaren alderdiari dagokionez, F. Galindoren laguntza izan dute. Transoceánica sormen proiektu bat da, inguratzen gaituen espaziotik abiatuta, eraldaketaz mintzo dena. Proiektu horrekin lotuta, dantza tailer bat eskaini da Kultur Etxean, Magnética izeneko eta Carmen Larranzen ere eman duena. Bukatzeko, Transoceánica



ikuskizunaren aurrestrenaldian bertaraturakoei beren iritzia artistekin aldaratzeko aukera izan zuten.

Maiatzean zehar bisitatu ahal izan ditugun erakusketen artean azpimarratzekoa da Artista Txikiak-en laugarren edizioa. Agoizko San Migel Ikastetxe eta Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleek eta 0-3 urtekoen eskolakoekin egindako lan plastikoak egon dira ikusgai. 500 pertsona baino gehiagok (publiko orokorra eta eskolako bisitak) disfrutatu dute erakusketa honetaz.

